

# DONOSTIAKO METROAREN SEGURTASUN NEURRIAK ERE AUZITAN

Hans Heydemann ingeniari alemaniarra 80 urte bete berri ditu. Bere hirian, Stuttgart 21 bataiatutako 60 kilometroko lurpeko tunel festa erraldoiaren aurkako borrokan murgilduta daramatza urteak. Suteen aurkako prebentzioa eta larrialdi irteerak ditu espezialitatea. Satorralaia elkarteak ekarri du Donostiara metroaren proiektua medio. Planoetan ikusi dute larrialdi irteera bakarra jarri nahi diotela, eta honek 500 metroko luzera eta 400 eskailera maila dituela. Horrekin, fiskaltzan salaketa jarri dute "segurtasun kolektiboaren kontrako delitua" izan daitekeen ikertzeko eskatuz.

 LANDER ARBELAITZ MITXELENA

**L**urpeko tuneletan gertatzen diren suteen prebentzioan aditua da Heydemann ingeniaria. Orain bi urte Baionan egin ziren *Proiektu erraldoi eta inposatuen aurkako nazioarteko jardunaldietan* Europa osoko herri mugimenduak bildu ziren. Bertan ezagutu zuten elkar Satorralaiako eta Stuttgart 21en aurkako herritarrek. Donostiarrek iazko abenduan jarritako salaketa administratibo baten ondorioz, lurpeko burdinbideek bete beharreko araudiak ikertzen amaitu dute. "Eusko Jaurlaritzak erantzun zigun Europako legea ez zutela zertan bete, baina AEBetako NFPA 130 zela zorrotzena eta %100ean betetzen zutela", dio Harry Stürmer Satorralaiako kideak. Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako sailburu Arantza Tapiak ere idatziz adierazi zuen hori Eusko Legebiltzarrean, EH Bilduren galdera bati erantzunez. Araudi hori zer zen ez zekitenez, Stuttgarteko jendearen bidez Heydemannekin jarri ziren harremanetan. Eta hau, buru-belarri sartu zen gaian.

Ondorioa? "Fiskaltzan salaketa aurkeztu du Satorralaiak Donostiako metroaren inguruan. Aditu batek araudi-urraketa larriak egiaztatu ditu tuneleko segurtasun eta larrialdiko ebakuaziorako baldintzen arloan", adierazi dute urriaren 22an epaitegiaren aurrean egindako prentsau-



DANI BLANCO

rrekoan. Ingeniari alemaniarra ikusi du Eusko Jaurlaritzak ez duela betetzen berak dioen NFPA 130 araudia. Hainbat eragile sozialek eta sindikalek ekimenarekin bat egin eta obrak gelditzeko eskatu dute.

Austriako Alpeetan, Kaprun hiriko funikularra herrialdearen modernitatearen ikurretako bat zen. Mendian barrena egindako tuneletik glaziar batera heltzen zen. 2000ko azaroaren 11n, ordea, ordu-ra arte sekula gertatu ez zena jazo zen: funikular batean sutea. Tunelean barrena zihoazela, trenaren beheko partean zegoen berogailu batek su hartu zuen eta

horren ondorioz guztia erretzen hasi zen. Tunelak tximinia erraldoiaren efektua egiten zuen,

oxigenoa xurgatuz beheko aldetik eta kea, beroa eta sua botaz gora. Bagoietatik irteera lortu eta suhiltzaile izandako pertsona baten gomendioei jaramon egin zieten 12 pertsonak bakarrik salbatu ziren. Hauek tunelean beharantz egin zuten ihes. Gorantz abiatu ziren guztiak hil ziren, keak

itota, eta ondoren karbonizatuta. Orotara 155 pertsona hil ziren, Wikipedian arabera, Austriako tragediarik handienean.

"Istripuak asko dira eta suteak ere bai". Erreportaje honekin batera datorren taulan daude lurpeko tuneletan izandako sute nabarmenenak. "Nire kalkuluen arabera, 1.500 hildako eta 5.900 zauritu izan dira munduan gutxienez tuneletan

“**Sute kasuan eraikin bateko 23. solairura eskaileretatik igotzen saiatzea bezalakoa da dagoen larrialdi irteera bakarra**”

Hans Heydemann



**SATORRALAIA** Donostiako protesta mugimendu nekazinetako bat bilakatu da. Irudian, artxiboko argazki bat.

gertatutako suteetan –diosku Heydemann ingeniariak–. Trenak tuneletan daude nean oso arriskutsuak dira, batez ere ke eta bero handia sortzen delako barnean”.

Groseko auzo elkarteak geratu gara Heydemannekin, Nafarroa Beherea plazan. Bertan egiten dituzte bilerak astelehenero Satorralaiako kideek. Egin duen ikerketaz mintzatu nahi dugu xehetasunez. Metro pasantearen proiektua laburrean adierazteko, gaur egun Hendaia-tatik datorren Euskotren tren, Easo plaza dagoen Amarako geltokira heltzen da eta hortik zerbitzatzen da Donostiako erdigunea; atzerantz abiatzen da handik Errotaburuko Lugaritzeko geltokira joateko hiru minutuan. Hainbesteko polemika eragin duen proiektu honek –2013an Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburu Ana Oregik “proiektu faraonikoa” zela esanez aurka zegoela adierazi zuena–, Easoko tren geltokia ezabatu eta Donostiako hirian barrena metro gisako azpiegitura berri bat eta Erdialdea-Kontxan geltoki berri bat eraiki nahi du hiru irteerarekin, bata Artzain Onaren katedralaren aurreko Loiola kalean, merkatal gune ugari dauden lekuan; bestea Londres hotelaren atzealdean bidaiariak Kontxa hondartzan atera daitezten, eta hirugarrena San Bartolome muinoan aurreikusitako merkatalgune berriaren sotoan. Ondoren, ezkererantz biratuz, badiaren azpitik Antiguara joango litzateke, Benta Berrin geltoki berri batekin, eta handik berriz ere Lugaritzen bat

gingo luke egungo Euskotren trenaren bidearekin Añorgan barrena jarraitzeko.

### LARRIALDI IRTEERA BAKARRA ETA EZ NOLANAHIKOA

Hans Heydemann pertsonen segurtasunak kezkatzen du gehienbat. Eusko Jaurlaritzako arduradunek adierazi izan dute burdinbideen NFPA 130 araudi estatubatuarra zorrotz beteko dutela. Zer da hau baina? Lurpean eta trenbideetan gertatzen ziren istripuak saiheste aldera AEBek onartutako segurtasun araudi bat. Geltoki eta geltoki arteko distantziak eta aurreikusi dituzten larrialdi irteera kopurua begiratu, ordea, ingeniariak ondorioztatu du Jaurlaritzak ez duela araudia betetzen. NFPA 130 arauak beste hainbat gauzaren artean dio 762 metro (2.500 oin, neurri anglosaxoia) larrialdi irteera bat jarri behar dela, eta estandar horren arabera, Kontxa eta Benta Berri artean dagoen 1.895 metroko tartean bi larrialdi irteera izan behar litzukeela; eta hirugarren bat Benta Berri eta Lugaritz arteko 1.187 metroetan. Guztira hiru, Eusko Trenbide Sareak bakarria aurreikusi duen lekuan.

Horrez gain, dagoen irteera bakarraz haserre mintzo da ingeniari alemaniarri. Donostia ezagutzen duenak badaki non dagoen Pio Barojako kiroldedia, Antiguako elizaren atzetik maldan gora joanda, Hotel Costa Vascaren ondoan. Hor dago aurrekusi larrialdi irteera. “Egizue kontu metroaren tunela Kontxako badiatik datorrela, urpean 15 metroko sakonerratik. Hortik jarri duten larrialdi irtee-

ra, Pio Baroja pasealekuan ateratzen da, 53 metroko garaieran. Horrek esan nahi du, 68 metroko desnibela igo behar dela, %15eko penditza, 'S' formako 500 metroko luzera eta 400 eskailera maila izan asmo dituen larrialdi irteera bakarrean”. Sute kasuan eraikin baten 23. solairura eskaileretatik korrika igotzen saiatzea bezala da, bere hitzetan. Imaginatu pertsona heldu bat, haurtxoa besoetan daraman bat, edo gurgildun aulkian doan pertsona bat. “Gazte batentzat erronka izan liteke, baina besteontzat ezinezkoa da”.

NFPA 130 araudiak ez du zehazki jarritzen zenbateko luzera izan behar duen larrialdi irteera batek, baina ahalik eta laburren izan behar duela dio Heydemannek; honek 500 metroko luzera du. “Hau ez da normala, erokeria da”, dio.

Soluzioa? Batetik, irteera gehiago egitea; bestetik, irteera hau mantendu nahi bada, salbamendurako igogailu bat jarritzea. “Horrek ordea gastu gehigarriak dakartza. Ziurrenik ia inoiz edo hamar urtean behin erabiliko den azpiegitura eraiki behar da, hori mantendu egin behar da, noizean behin probatu ongi dabilela, bandalismo arriskua du...”.

Eta zergatik egingo ote zuten irteera hori? “Kontutan hartu metro eta halako lanek eraikuntzetan pitzadurak eragiten dituztela. Nire teoria da Kontxaren aurrealdean dauden etxebizitzetan ez zutela eragin nahi, eta muinoaren gaineko eremu hori publikoa denez, hori hobetsi dute”.

“Sute edo istripu kasuan, pertsona guztiak ez lirateke gai 500 metroko irteera

**Urriaren 1 - 31**

**Gasteizen Euskaraz kontsumitzeak saria dakar! Zozketa**

Bai Euskarari elkarte

**Urriak 24**

**Bertso-saioa**

Arabako Bertsozale elkarte

**Urriak 29**

**Gasteiz euskaldundu mahaingurua**

IKA, AEK, Udaberria, Hegoalde

**Azaroak 6-15**

**Zabalgan eragin txaramelari**

ZET (Zabalgana Euskara Taldea)

**Azaroak 11-16**

**Salburuan keinua kirolari!**

Sarburu Kultur Elkarte

**Azaroak 18-23**

**Lakua Arriagan hainbat jarduera euskaraz**

Bost Urki auzo elkarte

**Azaroak 16-17**

**Kantari 2019 - Gasteiz**

GEU aldizkaria, ALEA, GOIENA

**Azaroak 26**

**Elkarrizketa musikatu. Arabagara**

**Azaroak 27**

**Xare, euskarazko kultura digitalaren jardunaldiak**

Oihaneder Euskararen Etxea / EJ-GV

**Azaroak 28**

**Mintzodromoa**

Bai Euskarari elkarte

**Izan zaitetz neu kontzertua**

Gari, Anari, Jon Basaguren, Libe.

Jimmy Jazz aretoa

Leocadia Zabalate elkarte

**Abenduak 3**

**Irakurraldia ALEA**

**Haur eta gazte literaturaren itzulpen sarien banaketa**

Erakunde adierazpena

Gasteizko Udala

**Abdon Glz. de Alaizaren alfabetoa eta Txistu komikia**

Arabako Foru Aldundia

**Kalejira Oihanederretik Andre Maria Zuriaren plazaraino**

Kandelen mosaikoa. GEU elkarte



Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko Udala

URTEA	HIRIA	HERRIALDEA	ZERGATIA	ZAURITUAK	HILDAKOAK
1972	VIERZY	FRANTZIA	Bidaiarien trenean sutea	111	108
1972	HOKURIKU	JAPONIA	Treko jatetxean sutea	690	30
1975	LONDRES	INGALATERRA	Metroan Trena errailetik irten zen	73	44
1975	MEXIKO DF	MEXIKO	Trenen arteko talka	30	50
1987	LONDRES	INGALATERRA	Eskailera elektrikoaren azpian sutea	100	31
1990	NEW YORK	AEB	Kableen sutea	200	2
1995	BAKU	AZERBAIJAN	Zirkuitulaburra	265	289
1998	GEIZHOU-GUIYANG	TXINA	Gas deposituaren leherketa	?	80
2000	KAPRUN	AUSTRIA	Olio berogailu elektrikoan	?	155
2003	DAEGU	KOREA	Atentatu su-eragilea	147	197
2005	LONDRES	INGALATERRA	Atentatu lehegailuekin metroan	700	56
2011	MINSK	BIELORRUSIA	Atentatu lehegailuekin metroan	300	15
2015	WASHINGTON	AEB	Ezezaguna	83	1
2017	SAN PETESBURGO	ERRUSIA	Atentatu lehegailuekin metroan	40	11

**LURRAZPIKO TREN ETA METROETAN GERTATUTAKO EZBEHAR LARRIENAK**

honetatik ateratzeko, eta batzuek kanpo-laguntza beharko lukete. Horretarako 25 metro koadroko gela isolatuak behar dira, bertan sartu eta erreskatearen zain geratzeko aukera izan dezan jendeak". Heydermannek eskuratu dituen planoetan ez dago halakorik aurreikusita. Tunelean bertan, zerbait gertatuz gero irte-teko espaloiak behar dira trenbidearen bi aldeetan. Espaloi hauek 75 zentimetroko zabalera dute ingeniariak dioenez, 80 zentimetrokoa behar luke, adibidez, gurgildun aulkian doan norbait atera ahal izateko, edo haurra eskutik ertsuta darman guraso batentzako. Dena den, hori oso estua dela uste du, hainbat egitasmo-tan 1,20 metrokoak ere egiten dituztela kontutan hartuz.

**HAIZAGAILUAK, AUZOKIDEEN ZARATA ITURRI**

"Planoetan ikusi dugunez, soilik sekzio batean markatu dute haizagailua jartzea, eta bigarren bat beharrezkoa da korrontea sortzeko. Pareta bat ere beharrezkoa da, haizagailu bakarra jarriz gero, airearen zirkuitu-laburra eragingo bailuke eta ez litzateke gai tuneleko kea kanporatzeko. Horrez gain isilgailuak ere behar dituzte eta ez dut inon hauei buruzko erreferentziarik aurkitu, haizagailuak lau astean behin martxan jarri beharko baitituzte ikusteko ongi dabilzala eta sute kasuan ez dutela hutsik egingo. Baina kontua da, haizagailu hauek izugarriko zarata ateratzen dutela, eta kalkulu logaritmikoen arabera bizilagunentzat hegazkin batek aieratzean egiten duen zarataren antzekoa izango da, 118 DB gutxi gora behera". Heydemannek dio ez duela hemengo araudia ezagutzen, baina Alemanian 50 DB baino gehiago ezin dela eragin jendea bizi den lekuetan.

"Desastre bat iruditu zait guztia. Ez dituzte NFPA 130 araudiaren exijentziak betetzen eta proiektua ezin da horrela egin. Plano berriak bota behar lituzkete, eta horretarako denbora gehiago behar da", borobildu du ingeniari beteranoak.

Satorralaiak egindako salaketaren albistearen berri ematean, *Noticias de Gipuzkoa* egunkariak, amaieran Eusko Trenbide Sarearen posizioa jaso zuen. Inongo xehetasunik eman gabe, bertan zioten ez zegoela inongo irregulartasunik eta prest daudela behar den tokian azalpenak emateko. Beren webgunean egiten dituzten komunikazioen atalean ez da inolako azalpenik ageri.

"Donostiak duen tamainarako, obra hau erraldoia eta oso garestia da. Ofizialki 180 milioi euro kostako dela diote agintariek, baina esperientziak diot askoz gehiago izango dela. Autobus eta tren zerbitzuekin nahikoa dauka hiri honek batetik bestera joateko. Nik ez dut uste interes orokorrari erantzuten diot metroak, eraikuntza enpresen interesak ikusten ditut atzean. Ez du zentzurik horrelako proiektu bat sustatzeak", dio.

Satorralaiak fiskaltzari eskatu dio ikertzeko. "Fiskaltzak zentzu objektibo balu salaketa onartu behar luke eta ikertu, baina tira, beldur naiz daukan eragin politikoagatik ez duela onartuko. Epaileek eta fiskalek gora egin nahi dute, Alemanian gauza bera gertatzen da, salaketa gehienak ez dituzte onartzen, beren karrera baitute buruan". Metro pasantearen aurka borrokan ari diren herritarrei zer esango liekeen galdetuta ondorengo dio: "Ez etsi, beharrezkoa da herritarrek erresistentzia jartzea inposatutako proiektuei: ez baduzu ezer egiten, ez duzu ezer ere jasoko". ●